



my name



CURUTZETACŌEN IBILBIDEA.

BICI BEDI JESÛS

JESUCRISTO GURE JAUNÁC,

GUIZON-EN EROSTE EDO REDENCINOIAGAITI,
CALVARIJO-CO MENDIRA EGUIN CITUBAN OIN-ATZ,
EDO PAUSU DOLOREZCOAC, DEVOCINOZ
ERABILTECÓ MODUBA.

Bizcai-có eusquerán iminija.



BILBON :

ADOLFO DEPONT-EN SILLUTEGUIJAN.

—
1854, garren urtian.

BICI BEDI JESUS

JESUCRISTO GURU JAUNAK

GIKON-EN EROSTE EDO REDREKIONAGAITI
CALVARIO-GE MENDIA EDIR CITUBAN OIK-AN
EDO PABU DOLOREKOKA, DEVOCION
ERABILTEGO MURDA.

Bilbon-ko enpresaren inbuntia.



BILBON :

ABOLBO BEPOT-EN SILETEGULAN.

1874. garten urtutan.



Siñaturic lenengo; baña bijotsetic biar dan
modnban curutsiac eguiten dozuzala, esañ
eiquezu devociñoeric beroenagaz.

Neure Jesucristo Jauna &c.

SARRERIA.

¡Gueure Jesus maitagarrija! bada guri
ceuscun asco gure edo amodijo andija gaiti,
gura izan cenduban irago calvarijoco bide


itsaltuba, necaturic, eta estuturic curutse santuben pisu andijagaz. Bide penazco onetan gugaiti irago cenduzan neque andijeen gomutan, opa deutsuguz gue orain, gu astera goiazan calbarijo onetan esan eta eguingo dogun guztija, eta emongo doguzan oin atz edo pausabaac ceure pasiñoeco irabaste edo merecimentu andijac-gaz batean.

Orain ganic daucagu gogoa, irabasteco, Aita Santu Erromocoac, bide santu au dabiltsanentsat, emonic ditubeezan parcacinoe edo indulgenciaaac, eta guztijaaç esquiniten deutsuguz purgatorijoco anima erruqui-garrijaac zor deutsuben-en quitugarritzat.

Onetaraco erregututen dentsugu bijots gustitic, arren gorde daguizula Elesha Ama Santea; indartu eta zabaldu religinoia; yagon cristinau errijaac; zaindu fede-dunaac; parcatu gueure pecatubaac ondu peccarijaac; eta ceruratu aibat lasterren, purgatorijoco lece illun itzal icaragarriscoan penetan dagozan anima erruquitsu orrec.

Iguzu bada arren Jauna gracija, devocino santu onetan zuri gusto emoteco. Amen.

Aitea-ren, Semca-ren, eta Espiritu Santubaren icenean. Amen.



Asi gaitezan esaten
Jesus-en neque penaac,
gogortada larritasun
erijotsa eta minaac.
Lagun dayogun guztijoc
Jesus-eri negarrez,
Calvarijoco bidean
doionari ain nequez.



LENENGO GUERA-ALDI EDO ESTACINOIA.

*Lecu-onetan preso artu, azotadu, eta erijotsaco
sentencija emon eutseen Cristo gure Jaunari.*

Azotez galdu ezquero
gueure Jesús laztana,
condenau dau Pilatosec
curutce baten illtera.
Etsan emen asco izan
azotez odol-ustutia,
amorruz quendu nay deutsé
crutse baten vicitsea.

Pensau eguizu Cristinauba, ez eucala
Jesus-ec beste erruric gueure pecatubaac
bere gañean artsea baño.

ESCABIDEA.

¡Oh Jesus adoragarrija! Ce maite dozun ceuc eguinico guizon esquer guestocoa; bada berari demoniñca-ren mempetic atera-ta Cerubetaco ateaac zabaldute-arren pasiñoce negar garriscoari asijerea emoteco, ceure icaslari edo discipulubac-gaz Jerusalem-en pascoa eguin da, yoan ciñan Getshehemanico ortura, eta ainche ceure bijotsa guztiz larrituric, estutasun-en indarrez gorputz guztija odolezco izarditan des-eguin ta guero, gura cenduban izan ceure arerijo amorratubai zalduba; soca eta catec indartsubac-gaz lotuba; echeric eche tataras erabilija, testigu guzurrezcoac-gaz zalatuba; icaslaric maite-nac ueatuba; Barrabas dongueagaz bat eguina; bost milla azotez ebaguija; arantsa bildur garriz Coroatuba; Eta oneec asco ezpalira leguez, emon eutsubeen curutse lotsagarri baten ilteco erabagui edo sentencija, estime-tan cindubeczala erijotsa-guille eta lapur bat baño guichiagotsat. Iguzu, arren Jauna, bijotz zabala, ceuc leguez onean eta baquean erøateco erbeste negarrezco onetaco neque, atsacaba, eta gaishotasunaac, alan gueure erijotsaco orduban ceure aoti entzun daigun betico ceruraco sentencija. Amen.

Pecatu eguin dot, Jauna, eta erruquiija nigaz, ceure pasiñoce eta erijotsea gaiti.

Aita gurea eta Ave-Marija.

Bedeincatuba eta alabaduba izan dedilla
Jesucristo-ren pasioe Santuba, eta bere
Ama maiteac bide onetan gu gaiti irago ci-
tuban neque eta penaac.

Onelainche esan eiquezu curutse baco-
chean.



BIGARREN GUERALDIJA.

*Emen imini eutseen curutzia lepoan Cristo
gure Jaunari.*

Curutse astun bat lepo gañean

iminita daroe,

gutziz arin arrastaca

erruqui asco bague.

Oraindino icusi ez dá

bera ilteco egurra

inori eroan eraguiten

erijotsa-co lecura.

Arritu emen Cristinaubaac, icusirie cé hu-
millic doian erijotsará coroe itsaltsu bategaz
Ainguerubeen erreguea, bera ilteco zubilto
tzarrá zolbarda azotez apurtuben gañean da-
roiala.

ESCABIDEA.

¡Gure animeen erosle edo redentoria! Cé prestic eta gusto andijagaz darroazun ceu il-teco bear dan arbola astuna, azotez odol os-tu-ta indargaturic egon da here, berac azpi-ratu-co zaitubala yaquin da here, Aitaren aserracuntcia beeratute-arren : ¡Ce amodijoz dirautsazun besoac zabalie! erdu nigana ordu onean aimbeste demporocaz deseetan zaitu-dazan curutze adoragarrija, ceure bitartez atara daguidazan, diabru asmutsbac here escupian daucazan animaac; erdu bada ni-gana benetan bijotzeti maite zaitudazan ar-bola osasuntzuba, ceugandie esqueguita bi-citsea galdubagaz quitutu daguidazan beste arbola galdubac. Adan-en semeai ecarri deut-seezan calte ain negargarriac... ¡Baña bildots bigun otsan eta mansoa! ¡Nora zoaz curutce astun pisutsu ori lepoan dozula? ¡Céc, baña céc zarabilz ain aspiratuba? ¡O Isaac eguijazcoa! Cé ishille eta gogoti zoazan erijotsaco lecu it-zal bildur-garrira gueu gaiti bicitsea emoten.. Iguzu, Jauna, indarra guc borondate guztija-gaz eroan daigun penitencijaco curutsia, gu-re bijotsaac mindu ez ditecen, mundu one-tan emoten deuscuzuzan nequeac-gaz, eta gure atseguin guztija izan dedin, ceugaz cu-rutsian penetia, au izan bedi gure poz-garri

eta glorija. Amen. Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



IRUGARREN GUERALDIJA.

*Emen yausi zan lenengo curutziagaz gure
Salvaguillea.*

Icaratu Ainguerubaac
icaratu icusiric,
ceuben erregue indartsuba
luce luurrian echunic.
Pecatubac gaiti curutse pean
badago erru baguea,
¿celan aurquitu-co ete da
erru dunen animea?

Beguirra emen pecatarijaae, cé yausi eta
azpiratubac dagozan gure animaac, icusi dai-
gun Jesús-egan pecatuba-ren astuntasuna.

ESCABIDEA.

¡Gueure Jesus hijotzeco, ceru eta luurren
eguillea! andija da nombait gure pecatubeen
astuntasuna, bada luurrari yo eraguiten

deutsee ceure majestade guztiz altsubari,
gauza guztijaac indartu-ten dabezan orreri.
Curutze astunagañean eta Jaungoicoa-ren
semia azpijan... ¡Ay! ¡Cé icusgarri negarga-
rrija. Munduco pecatu guztijaac artu dozuz
curutze orretan, eta euren pisu esquerguiac
ezarri dau luurrera ceure gorputz odolduba
Jerusalen-go calien erdijan... Eta orregaiti
bere ain alamin gogorraac pocic daroazuz,
Jesus laztana, gu guztijoc Jaungoicoarentsat
irabastea-gaiti, vorondate osoagaz esquinitten
zara erijotsaric crubel eta lotsagarrijenera,
baña erdibituten deutsu ceure bijotsa ezagu-
tutiac, alperra izango dala ascoentzat ceure
calvarijora-co igoqueria, leen leguez maitatu-
co dogula pecatuba, eta asco, eta asco ez-ga-
reala valijadu-co ain ugarri gugaiti ezarten
dozun ceure zanetaco odolagaz...

Eregui gaizuz, Jesus gozoa, ceure gracia
santubagaz pecatuban yausten gareanoc, eza-
gutu eraiguzu, ce caltegarrija dan pecatuba
maite izatia, eta iguzu arren, ceure escuba,
aurrerantsean gueure bicitsa gaistoac obatu-
ta, pecatubari gorrotoz beguiratu-ta arindu
daigun gure pecatubaac astundu deuntsubén
curutse nequetsu ori, asquenic ceure lagunt-
zan ceruco bear zari gozoac izateco. Amen.
Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



LAUGARREN GUERALDIJA.

*Emen alcar icusi ebeen Ama Seme erruqui-
garrijaac.*

Negarrezco bəguijac-gaz
dauz Amac Semea,
galduric eta il bearrez
¡Ay! au bay zala nequea.
Ceruco eguzqui bijaac
euren minaac mututu-ric,
alcarri beguira dagoz
arnasaric atera ecinic.

Pensau eguizu Cristinauba, ce icara eta
larri aldijaac iragoco cirian, munduban izan
dirian Ama Semeric laztan-en artean aur-
quitu ebeenean alcar calvarijo-co bidean.

ESCABIDEA.

¡Cerubetaco erreguina, eta Amarie erru-
carijena! Ce estu eta larri guelditu-co yat-
zun bijotza, araco Jerusalem-go larri calean
ceure erraijac icharon ecin da, odol-en er-

rastubetati negarrez atsian yarraitu-ta, icusi
 cendubanean ceure erraijetaco seme laztana,
 eta Ainguerubeen edertasuna, curutce astu-
 nagaz necaturic, bere buruba arantsa zorrot-
 sez galduric, arpegui ederra ubelduric, gor-
 putz guztija odol usturic, larrijaren andiz
 barbaric atera ecinic, osta osta oñen gañean
 egoala eta erruquija-ren apurric bagaric
 soca gogor bategaz zamati lotuta, golpeca, al-
 garaz eta deadarrez, soldauben arma artean
 iltera daroiela... Alderatu zaite Ama erruqui-
 garrija, millá bicitsa galtseco asco dan icus-
 garri triste órretati : andijeguijaac dira zu
 zure semiac daroazan nequiac, eta urrindu
 zaite beragandi, bada gueijago larritu-co dau
 estutasun orretan ceu icustiac, bere agonija
 eta erijotsiac baño... Quen zaite bada, Ama
 tristea, gente ain gaisquille orreen arteti, ba-
 da echatorcó zure garbitasunari, lapur eta
 erijotsa guilleen artean yoatia... Baña ¡Ay!
 neque gueijagotsat daucazu bera bagaric bi-
 citea, min ala edo tormentu orreec iruntsi-
 tia baño; andija dá deuntsazun amodijua, eta
 gura deuntsazu lagundu eroaten bere pasiñoec-
 co naibagueac. Gure eroste edo redencinoian
 parte euqui gura dozu, eta gura deuntsazu la-
 gundu ataraten guizona demoniñoa-ren erpa
 arteti, lagundu gura deuntsazu idiguiten,
 aimbeste guizaalditan ichi-ta dagozan ceruco
 ateac... Zoaz bada ordu onian, Ama tristea

gu gaiti ilten doian semeari lagun eguitera, zoaz ain laztan dozun semeari, aimbeste goza-aldi emon deutsuzan semeari, atsenengo agur negarrezcoac eguitera: zooz, bada, beragaz batean guri ceruco bideac idiguitera, Ama gozoa erregutu equijozu gugaiti ceure semeari; Jesus ona entsun eguizuz ceure Amaren erregubac, eta iguzube indarra, yarraitu deyogun ceuben atsean bide gogor nequetzu oni erijotzaco lecuraguino, onelan gure pecatuben parcacinoia, zubén bijoen amodijoa, eta ceubéc. ceruban icustia betico yaristi edo alcanzau daigun. Amen.

Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



BOST-GARREN GUERALDIJA.

Emen Simon Cireneori arraso eutzén Jesus-en Curutzea.

Jesus nequez yoiala
borregubaac icusirie,
emon eutsén lagun bat
il etsedin bildurturie.

Emen laguna emotecó
etsan erruquitasuna,
esqueguita icusi nay dabé
cerucó edertazuna.

Pensau eguizu cristinauba, yudegubén
amorruba Jesús curutzean yoitecó, bada bi-
dean il ez equijén bildurrez emon eutzén la-
guna.

ESCABIDEA.

¡Salbaguille maitea! cè nequez eta cé osta
gogorrean eguin cenduban calbarijora bidea,
bada Judegu arrigarriac euraac uste eben-
ecé, ilgo ciniala bidean bertara eldu baño lee-
nago; eta bildur orregaiti emon eutzubeen
Simon Cireneo laguntzat. Erruquiija Cirudi-
jén zuri laguna emotea, baña ona emen, zu
ganaco amorruba-ren asmu-ric oquerrena:
Guichi derichue oin artean eguin deutesubee-
na; ez-ta oraindino ondo azetu zure contra
dauqueen amorruba, euren escu crubelac-
gaz gura zaitubec yosi curutce lotsagarris-co
orretan; eta edan eraguin, Ainguerubác ba-
ratsan esquini eutsun caliza garratsa-ren as-
quenengo ondar zaminac... Iguzu, Jauna-
eeure nequeen erruqui andi bat, onelan ceu-
re gustuba eta borondatea eguiteco, mundu-
onetaco atseguinac, ostico petutecó, eta gu-
raari edo deseo andi-bat ceugac ilteco, secu-

la-co gozadit zaiguzan. Am. Jauna pecatu &c.
Aita gurea &c.



SEIGARREN GUERALDIJA.

Emen aurquitu euan Veroniquiac.

Veroniquiac siqueta-arren
Cristo-ren izardija,
eun garbijan atara dau
Jaun onen arpeguija.
Nos bait Jesús laztana
aurquitu dozu erruquija,
baña gueijago-gaz emon dozu
erruqui onen zarija.

Pensau eguizu Cristinauba emacume arga
baten sendotazuna, yudegu amorrotubeen
ardura baga zartu zanean Jesusi arpeguija
garbitutera.

ESCABIDEA.

¡Gueure Jesus edertazun eguijazcoa-ren ispi-
llu ederra! eta ¡cè ezain ichi zaitubeezan gure
pecatubaac! bada zu izanic Ainguerubeen is-
pillu loi baguea eta guiza-seme guztijeen ar-

tean ederrena, guelditu yatsun arpegui gustija, aimeste yotegaz baltizuric, anditu-ric, eta ants guztija galduric, eta izardiz, autsez, chistuz, eta odolez loitu-ric; Eta ichura galdu onetan cinoazala, erruquiz bete-ric eldu-zan Beronica erichou emacumē zamur-bat, eta borregu-been bildurrác alde batera bota-tá, gentedi andi baten arteti zartu-ta, bere buruban eroian eun garbija-gaz, sicatu eutsun, ceure arpegui odolez ezaindu-ric egoana, eta eguite-có andi onen pagu-tsat emon ceutsan bere tocan ceure arpegui eder-aren irudija edo formia... ¡Ay ceruco bildotz orban baguea! ¡Cembat costetan yatsun guizonen eroste edo redenciñoia! bada izardiz-co eta odolez-co errequen artian naibague eta neque andijac-gaz, zoaz eurac-gaiti bicitsea emotera, eta ilte-co lecu itsalera eldu baño leenago iruntsi eraguiten deutesubeez agonijaco larritazunaac.. Iguzu, Jauna, pecatubeen damu zolija, ez bitez aldendu gure gomutatic, gu-gaiti irago dozuzanác, yosi-ric guelditu bitez gure bijotsetan ceure neque garrat-zác, eurác alderatu gaijeezan pecatu eguiteti, alan guero izan gaitean duin icuste-có ceure arpegui eder orban baguea ceruco Ainguerubac-gaz batera. Amen.

Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



ZAZPI-GARREN GUERALDIJÁ

*Emen yausi zan bigarrenez curutzea-ren pi-
subagaz gure salbaguillea.*

Golpeca eta arrastaca
darojela bidean,
bigarrenez ezarri dabé
Jesús gozoa lurrian.
¡Ay! eta gure pecatubaac
cé aztunac dirian!
eta, ¡ce erraz pecatu-ra
bijurtu-ten garean!

Beguirá emen pecatubeen anditazunari,
aldatsa-en, igo-eran indarrac gustijác galdur-
ric, Jesús laztana yausi-zan bigarren bider-
rian, eta aurquitu eban erruqui-ja izan zan,
ostico puntazoca yagui eraguitea.

ESCABIDEA.

¡Bildotz errubaacoa! Ce humiltazun andi-
jagaz imini cinean ligoé gozetu eta odol-za-
lien erparteán! Bada ucabilea, osticoca, eta

maquillaca, bigarrenez bota cindubeezan, ceure arpegui adoragarrijagaz lurra yoten cendubala, eta ceure ago gozoa-gaz mun eguiten ceuntsala, etseuncala noc escu ric emon, ez noc lagun eguin yaguitec6, ezpada osticadaca aurre eroaten ebeen, soca-caz arrastaca zure altazun edo majestade benegarrija lotsaquizun eta crubeldade andijae-gaz. ¡Gure animeen erosle laztana! gueu izan gara gueu, zuri onembeste neque ecarri deut-zugunac : Gure pecatubaac izan dira zu bigarren aldijan luurrera ezarri zaitubeezanac... Arren, Jauna. emon eiguzu graciaja, gue mundutarren bildur baga-ric, gueure pecatubeen penitenciaja eguinagaz, arindu daiguzan curutze astun orren pisubac guero onen zarijan ceugaz beti bici gaitezan. Amen.

Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



ZORTZI-GARREN GUERALDIJA.

Emen berba eguin eutzeen Jerusalem-go alabai.

Iltera lapur bat leguez
doiala Jesús laztana,

Jerusalen-tarrai dirautzec
bijurturic eurac gana.

Pecatuba-ri negar
negar pecatuba-ri,
pecatubaac ecarri deustez
min ala oneec niri.

Pensau eguizu Cristinauba, Jesus-en ar-
duria guri eracusteco, bada nequez bete-ric
erijotsaco lecu itsaltsura bicitzea emotera
joiala bere atsean joazan-ai esan eutsen: Je-
rusalen-go alabaac ez eguizubé negarric eguin
nigaiti ez-pada ceuben pecatubac-gaiti.

ESCABIDEA.

¡Oh Aita laztan eta maesu eguijazcoa! ¡Ce
ardura andija-gaz eracusten deuscu-zun ce-
rura-co bidea! bada nequéz eta alaz arnasea
bete ecinic cinoazala, guztija astu-ta guelditu
ciñan eracusten, ceure atsean negarrez yoazan
andra erruquiorrai, celan ez zuri ezpada eu-
ren pecatubai eta eureen semeenai negar e-
guin bear eutseen... Ezagun da bai, Jesus laz-
tana, gu-gana-co amodijoan ceure bijotsa erre-
rie daucazuna; Ezagun da bai, guri salvaci-
noecobideac eracustea-gaiti eta beste bagaric,
ceru-ederrac ichi-ta luurrera etorri zareana;
bada ceure arnasaic artu ecin acaz, ceure es-
tutazun eta izardi larriyac-gaz, ceure agonija
eta urrian daucazun erijotsea-gaz beragaz

aztuta gueldituten zará, ceure antsera munda-
duco nequeac eroaten, eta pecatubari gor-
rotoz beguiratu-ten guri eracustea-gaiti.
Emon eiguzu, arren Jauna, ceure eracutsija,
emon ceuntseena leguez andra erruquior
onei, ceure icasbide edo ejempluba-gaz eroan
daigun poz andijagaz, naibaguezco edo mor-
tificaciñoeco curutsea, eta ceure laguntasu-
na-gaz negar eguin daigun, ez mundu-oneta-
co atsacabeac-gaiti, ez yasoten yacuzan guer-
taera charrac gaiti, eta ez luurreco ondasunac
eurac galdutea gaiti, ezpada ceure altazun edo
majestadien contra eguin doguzan deungaro
eguinac-gaiti, eta iguzu gracia. ceure pasi-
ño santubá, eta erijotsa negargarrizcoa beti
gogotan euquiteco, bici garean artu guztijan.
Amen. Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



BEDERATZI-GARREN GUERALDIJA.

*Emen guztiz ucatu-ta guztiz indargatuta yau-
si zan irugarrenez.*

Arnasarie artu ecin dá
aoa zabalie luurrian,

irugarrencz dago Jesus

echunic curutce pean.

Ez dago here erruquiric

ceruban, ez luurrian,

Ez da inor asetu-ten

illic icusi artean.

Pensau emen Cristinaubac, ccimbat bider
yausi garean pecatuban, eta cé curutce astu-
nác izan garean Jesus entsat.

ESCABIDEA.

¡Ce icusgarri itsaltsuba daucagun gueure
beguñeen aurrean! Irugarren uldijan dago
guztija odoltu-ta, curutce peti yagui ecinic
indar guztijeen yaubea, eta irugarrenez luu-
rragaz bat eguñic, araco ceruben poz-garri
dan arpegui benaragarrija. ¡Baña! ¡Ce ego-
queratan, Jaungoico altsuba! Cé egoqueretan
imini zaitubé erijotsa-co lecura eldu baño
leenago? ¡Neure animea! ¡Nor eta da araco
curutse pean guztija odoltu-ta eregui ecinic
dogoana? ¡Nor ete da araco here arpeguija
luurragaz bat eguñic daucana? ¡Ay!... ¡Ay!
esan al baguinai odolezco negarracgaz : Ashe
dá ceruco erreguea, ceinen aurrean itsal san-
tuz bete-ric dagozan serafinic ereguijenac:
Ashe dá Jauna, Sodoma eta beste uri edo
ciudadiaac cerucó subagaz autz bijurtu citu-
bana: Ashe da Jaungoicoa, Faraon anditsu-

baren martizdi edo ejercitu icaragarriscoa ichasoan ondatu-rie ichi ebana. ¿Noc bada alan Jaun bildurgarrija, uoc alan argaldu, eta indargatu dau, ain zarrí luurra yoteragino, zure altazun ain itsal andicoa? ¿Noc aimbesteraño macaldu eta aricatu dau, indar guztijaac bere escu barruban daucazana? ¡Ay Jauna! Gure pecatubaac aimbeste gach zugañ eguin badabé; zure al edo poderijoa pecatubeen orbanic inos beragan izan ez dabena alan aspiratu-ta ichi badabé; ¿Cer eguin izan-go ez dabé gugañ, pecatu orreec eguin izan doguzanoc-gan? ¿Gure pecatubaac zu luurrera bota zaitubez? ¿Gure eguiquera charrac zu alan, ezaindu-ta ichi zaitubéz? ¡Ay bada! ¡Cé baltsitu eta ezaindu-rie egon-go direan gure animaac!... Bigundu eguizuz Jauna, gure bijotz arriscoac, eta emon eiguzu pecatubeen gorroto andi-bat, gueure beguijeeta-co negarracaz garbitu erai-guzuz gueure anima-eó orban eta ezaintazunac, alan munduco egotaldi labur ecer ez gogaicarri au, pecatubeen arri labanez bete-au amaitu edo acabau denian eregui gaizuzan ceru-có glorija goi ederrera. Amen. Jauna pecatu &c.

Aña gureu &c.



AMAR-GARREN GUERALDIJA.

Emen billostu eben ceruco erreguea.

Gu billostute-arren
pecatuben yantsitie,
ceru luurren yaube dana
guelditu-da biloshic.

Tiraca ta indar-ca
erantsi-ten eudela,
odolezco iturrijaac
yausten cirian luurrera.

Beguir-emen, cé aricatu-ta eldu-dan Ainguerubeen erreguea, mundubac icusi dabén lecu-ric itsaltsubenara; eta borregu-baac eldu ta berpertatijan, ligoe batsuc leguez bere gañera ezarri-ta, beguir, cé lotsaquizun ta gogortadacaz quendu eutseezan, bere gorputz zauritubai oratu-ta eucazan soñecoac.

ESCABIDEA.

¡Jaunic aberatsena! ¡cerubaac izarrez, ce-laijaac loraz mundu gustija edertazunez, eta

arbola-guiñocoac frutu eder icusgarriz yasten dozuzana ;Cé lotsaari gogorrean icusi cenduban ceure buruba! araco billos billos hic nairu gorrijan mundu bete lagun-en aurean ichi einduezanean! eta ;Cé min icaragarija ceuria, baperé erruqui ta bigun bagarie indar andijacgaz tiraca quendu eutsu-beezanear, ceure gorputse-co aragui eratsijai itsatsi ta egozan zoñeco odol/dubac!... Lutoz yantsi zaitecee ceru altubaac, eta illundu eguizubez ceubén argui ederrac, eztaldu ta guelditu-dedin, mundu guztijaren aurean billoshtuta, lotsaturic dagoan ceubeen eguillea. ;Aushe Jauna, ecarri deusubee gueure pecatuetaco nabarbenquerijac! ;Onetarashe ecarri zaitubé gure andi guraari eta arroquerijac!... Arrera, Jauna, idigui eta quendu eguizuz, munduco zoraquerijeen zaltetan, ta luurreco atseguin guzurrezco-en guraari edo deseoc, ta emon eguiguzu nequeen egarri andi-bat, alan ceruban glorijaz yantsiric ceugaz beti bici gaitezan. Amen.

Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c



AMAICA-GARREN GUERALDIJA

*Emen guztiz gogor yosi ebeen untsiacaz curut-
sian.*

Ecu oñac untsiacaz
curutse baten yosi-rie
esquegui-ta dagó Jesús
miuez il ten gu gaiti.
Iru atseti cerú luurrac
dinguilliscá daucazana
iru untseti curutse baten
dinguillizea dago bera.

Beguirra emen Jesusi escu oñac intsecaz
curutsian yosi-rie agonija illun itsal icaraga-
risco baten dagoala, baña oraindi biciric.

ESCABIDEA.

Ara emen, Jesús laztana, mundu zoroac
ceure erijotsan opa deutsun oea. Ain ne-
quiesca lepo gañean ecarri dozun curutse
bildur-garriz-co orretan, ain arnasa estuba-

caz ecarri dozun zur itsal orretan yosten,
 zaitubé escu onetati burdinazco untse lodi-
 jacaz ;Ay gueure Jesús gozoa! ;Cé arrigarrija
 dozun oé ori! ;Ay gure animaco redentoria!
 eta ¡cé garratz mina, araco ain egarri andija
 azetuteco, edo aimbeste peneen ozagarri-tsat
 biaz tunagaz naazu-ta emoten deusubeen
 edateco ori! ;Ay Jesus maitagarrija! ;Cé in-
 indar andijacaz tirazo-ten deutseen ceure
 gorputz guztiz santuba-ri aec borrego ma-
 daricatubaac, azurraac guztijac euren lecu-
 beetati ateraten deusubeezala! ;Gueure bi-
 jotseco poza! ;Cé estuba eta cé necosoa dan
 au oe au! ;Ceruco eguzqui eder arguija Ain-
 guerubeen euren poz-garri zareana! ;Cé lár-
 ri, itsal, ta illundu-ric zagozan, Marija Virgi-
 nearen seme santisimoa! Eta zu alan icu-
 si-ric, cé aleguinacaz atara bear doguzan,
 gue gueure gorputz ustel, eta ilcorrai emo-
 ten deusaguzan atseguin loi, eta poz zoro
 cital gargarrijac. Yosi eguizuz, Jauna, yosi
 gure bijotsaac ceure bildurtazun santuba-
 ren untse zolijacaz, ibilli ez gaitazan zoro
 eguinic, pecatubeen vide guestuetati; Ne-
 queac izan bitez emen gure poz-garrijaac,
 guero belico atseguintazunac ceruban izateco
 Amen. Jauna pecatu &c.

Aila gurea &c.



AMABI-GARREN GUERALDIJA.

Emen il zan Jesucristo gure Jauna.

Guizonai ez emote arren
beticó erijotsia,
Jaungoicoa-ren semiac
galdu dau bicitsea.
Il-dá pecatarijaac
Il-da salbatsallea,
curutse baten emon dau
atsenengo arnasia.

Beguirá emen ce lotsagarrija izán zan
mundubaren beguijetan, ta lapur bijen er-
dijan Jesusi emon eutsen erijotsia.

ESCABIDEA.

¡Oh cé gach icaragarrija dan pecatubai
bada bera-gaiti dacuzcu carutse baten es-
quegnita illic Jaungoicuaren semia bera!
¡Guztijeen bicitsea, luurreco aberequinocoa!
izatia emoten deutzazuna! ¡Noc alan il zai-
tuz? ¡Cé escu crubelec quendu deutzubé zuri

bicitsea? ;Noc baña nóc imini zaitu egoquera negar-garrisco orretan? ;Cé on icusi dozu gugan aimeste neque lenengo iragota asquenez gu gaiti bicitsea galduteco? ;Baratsa edo ortu santu-co larritasunaac bost milla azote esquerga, arantsazco coroe itsaltsuba eta pasinoe negar-garrija; ;Ez ete dira asco izan gu pecatu-peti aterateco, bicitsea galdu baga-ric? ;Gure beguijaac! ;Nozco doruez negarraac? ;Gure Jesus bijotsecoa! ;Gueure bijotse-co bijotsa! Orainche dozu gu-ganaco erruquijaren aldija. Gueu gaiti il zara; Gueu gati guelditu zara ezqueguita arbola altu orreta-ti, ceure zanaac guztijaac udol-ostu artean; Gueu-gaiti azquenez galdu dozu bicitsea lapur bijeen erdijan, ain lotsaari andijagaz. Illundu da cerubá; icaratu da luurra; idigui dira obipe edo sepulturaac; des-eguin-da templuco velo edo cortinia; erdibitu dira arrijaac; negar eguin daigun euracaz batera gue bere salvaguillearen erijotsa negar-garrizcoa; apurtu bequiguz damuarren gueure bijotz arisikoac : il bequiguz mundu-co gaucetara-co poz guztijaac : gorrotoz beguiratu-ric peatubari, eta aldendu-ric secula-có bere bide deungueetati, iraun daigun erijotsa guiño ceure serbicio santuban, alan guero erijotsa ostein ceugaz beti ceruban bici gaitezán. Amen. Janna pecatu &c.

Aita gurea &c.



AMAIRU-GARREN GUERAALDIJA.

*Curutseti gorputz, santuba eretsi-la Ama bir-
gineari altsuan imini eutseen lecuba.*

Espiritu Santuba-gandi
izatia artu ebana,

eta Aingueru-been poza-gaz
Belea-en yaijo zana.

Ama minez gañeztu-bac
dauco altsuan zaoriz illic
bere semia ete-dan
ezagutu ecinic.

Emen dauquee gure bijotsaac cer asco za-
murtu, icusi-ric Sion-go doncella ederra; he-
re seme Absalon, Absalon bere seme eder
maitagarrija zaoriz il-da altsuan daucala.

ESCABIDEA.

¡Martire guztijeen erreguina! naibaguez ta
larritazunez betea! ¡Cé irago-ric, eta conorte
baga-ric guelditucó yatsun animea! eta ¡Cé
larri bijotsa! araco icusi cendubanean alt-

soan illic ceure seme hacarra, eta zaitituric, Espiritu Santubác ceure erraijetan zortu eban gorputz ederra. ¡Noc esan, ez noc gogoaz bere ur emon, zure bijotsean irago cirian nequeai, araco ain urreti icusi ceuntsazanean bere buru eder arantsaz galdubá, arpegui odolez atsituba, escu oin untse zorrotsez zulatubác, zolbarda azote gogorrez apurtubác, albo lantsa crubelagaz idiguija, eta gorputz guztija buruti biatsera dana zaoribat eguin dá guizonen irudi edo antsie bere ez eucana. Beguira ondo cristiñaubác, etedagoan munduban, bere nequiacaz bardin du leijan neque-ric : eraguiten ditu bere beguijac cerura, ta dacuz gustija, eclipsau edo lutoz yantsiric; beeratu-ten dituz luurrera, ta guztija dacuz icara-tu ta illunduric; bijurtu-ten ditu bere altsora, eta, ¡an? ¡Ay!... eta, ¡an?... Ez-dau an icusten beste gauzaric... Odolez heterico azur pillo bat baño. ¡Ay Ama, nequetsuba! Ichasoa duin andija da zure larritazuna; martire guztijeen alamin edo tormentubaac eztaunque cer icusi zure nequeacaz beste guztijeen gañeticoac dira zure atsacabeac ; Damu dogu, Ama maitea, guegueure pecatubacaz zu onetara ecarrija ; damu dogu gueure eguiquera chaarracaz zuri aimbeste naibaga emona, ez-dogu gueijago pecatu-ric gara; zure eta zure semia-ren borregubaac gu izan bagara, ceugaz batera ne-

gar eguiten gueure egunaac amaitu gura
doguz. Ama zaminduba artu gaizuz, arren,
emen semetzat, guero beti egoteco ceruban
ceuri emoten amatazun onen esquer gozoac.
Amen. Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



AMALAU-GARREN GUERALDIJA.

*Cristoren sepultura santuba, ta ama birginea-
ren bacartada illuna.*

Altzoti quendu eutseenean
bere semien gorputza,
¡Ce illun larri guelditu dan!
Ama tristearen bijotza.
Ichaño-co olatubaac leguez
emen bai naibagueac,
iruntsi citubala
Ama minez betiac.

Pensau eguizu cristiñauba, celacoa izan-
go zan Ama-birginea-ren larritazuna, altzoti
quendu eutseenean bere seme laztana, ce-
ru-co eguzqui ederra, obipe edo sepulturan
zartseco.

ESCABIDEA.

¡Oh Ama-ric errucarrijeena! ¡Ce bacarra ta illuna guelditu zarean ceure beguijeetaco argui ederra bagaric! ¡Non dozu ceure seme maitia? ¡Non da, Ama larrituba, ceure bijot-seco seme bacarra? ¡Non orain artu-co dau atseguin apur bat zure bijotz estu-orrec? Orain artean illic baño ezpada bere, icusten izan dozu ceuré semea; Baña, ¿orain? Poz-aldi gozoz eta atseguintasunez, betetan izan deutsu orain artean ceure bijotsa: Baña ¿orain? ¡Ay! Ar-losa astun pisutsu batec ez-taldu deutsu beguijeetati, eta ez-daucazu iñon bere atseguin garri-ric. ¡Ceru sabale-tan eurretan cabidu een dana, obipe edo se-pultura estu baten dago zarraturic! ¡Ceru luurrac argui ederrez yantsiten ditubana, arri gogor batec dauco ez-taldu-ta illunduric! ¡Cé poz-egaz bada, Ama erruquigarrija, cé poz egaz yoan-go zará echera, ceure seme maitia bagaric? ¡Cé arnaza-gaz bijurtuco zara barriro, leen bere atsian negarrez irago za-rian bide itsaltsu orretati? ¡Ez ete da egon-go erruquizco personaem bat, zuri lagun eguiteco aibeste nequeen artean? ¡O ain-guerubaac eta criatura guztijaac! Gueure Erreguiña oni lagundu deijogun bere luto eta bacartazun triste onetan... Gugaiti icusi dozuezan necaldi eta larritasunac-gaiti, es-

catuten deutsugu Ama seme bijoi, arren
eguin gaizuezala aurrerantsean, ceubei atse-
guin emon-go deutsugun langoac; garbituric
gueure bijotsac pecatubagana-co echunta-
zun, eta grinalda guztijeetati, obipe-tu edo
enterrau daigun euré an Jesus-en gorputz
adoragarrija, asquenen-go egunian biztu-ta,
ceubecaz glorijaz yantsi-ric egoteco eta de-
hocino ain santu onen zale dirianentzat,
daucazubeezan atseguintazunac gozeta-co
beti iraute edo eternidadian. Amen.

Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.



AMABOST-GARREN GUERALDIJA.

*Jesús biztu-ta Magdalenari agertu yacon
lecuba.*

Pecatarijac-gaz daucazala
here atseguintazunac,
aituten emoten deuzcu
gaur Jesús laztanae.

Ezagutu daigun emen, cristinaubac, celan
maite dituban Jesús gozoac, pecatu-co bicit-

sea-ri ichi-ta, bicitsa garbi bategaz bere ser-
 vicioa-ri yarraitu-ten deutseenæ,

ESCABIDEA.

¡Oh Pccatarijeen aita erruquiorra! ¡Oh ar-
 di galdubeen artsain arduratsuba! Bada,
 ogueta ama-iru urte-co nequiacaz, eta eri-
 jotsa crubel eta lotsagarri bategaz, mundu-
 có pecatu guztijeen quitu-garri edo satisfa-
 cinoia ceure Aita-ri emon ezquero, iruntsi
 cinduzan erijotsiac, araco ainchina Jonás i-
 garlia balea erichon arrain andi batec irunt-
 si ebana leguez; baña Jonas ec berac arrain
 icaragarrisco-au goitu edo vencidu-ta, bere
 barruti iruga-rren egunian urten ebana le-
 guez, alan zuc bere erijotsia eta infernuba
 goitu ta, urten cenduban irugarren egunian
 erijotsia-ren aoti, ez gueijago beragana bi-
 jurtuteco ¡Oh egun andi, egun pozez-co eta
 zorijontsuba! Ceru luur eta izatia dauqueen
 gauza guztijaac, dagoz pozez arritu-rie. Poz-
 turic dago ceruba, canta zoñu gozoac dau-
 queez Ainguerubaac, eureen erregueac in-
 fernuba-gandi alcanzau daben goitute edo
 victorija-gaiti : pozturic dago luurra, bere
 negar eta illuntazunac quendu-co dituban
 argui izar ederra, yajoric dagoala-co, poztu-
 ric dagoz araco euren eguillea-ren erijotsan
 aibeste atsacaba aitu-ten emon ebeen e-
 gasti eta abere-guiñocoac... Poztu bedi bada

Elesha Ama Santea, bere esposoaren gorputz eta odol adoragarrija-gaz aberastu-ric guelditu dalaco, eta canta soñu Aingueruscoac-gaz aitu-tera emon daijala gaur bere poza, bere semeac infernu-co, cateetati libre guelditu direalaco. Poztu gaitecen gu bere pecatarijac, bada gaur idiguiten dira, lenengo pecatu-ti eta oin artean zarratu-ric egon dirian ceruco ateac; eguin da gure erremedijoa; eldu da gure eroste edo redencinoia; Poztu gaitecen asquenez, Jesus laztanac bere atseguin eta pozac pecatarijacaz daucazalaco, bada deuscun amodijoa; aitu-tera emote-arren bere lenengo aguerpena, Amas ostian, eguin deutso emacume pecata-ri bati bere edertazun eta atseguinez yantsi-ric gloriya-co lau dote miracagarriyacgaz apain-duta milla eguzqui baño eder eta arguijago. ¡Oh Zorijoneco Magdaleniac bere pecatubai eguin eutsazan negarrac! ¡Oh Zorijoneco mundubari eta bere arrotazuna-ri eguin eutsan betico agurra!... Ceure viztuera santubagaiti viztu gairuz, Jesus gozoa, pecatu-co erijotsati gracia-co bicitsara baña ez leengo ciquinquerijetan aoraiño zartu-ric ibiltecó; ez leengo pecatubeen sepultura ustel eta atsitu-ra barriro bijurtateco, ez; ezpada ceure pasiño-co itsaltazunac geure bijotsian yosi-ta, ceure legue santuba osoro gorde-ta, agur benetacoa pecatuba-ri eguin da, ceure servicijoan

bici izateco, eguin deuzcuzun redencinoia-
gaiti, ceuri esquer oneco izateco, artu dogun
gracijan sendatu-ric, garbitazun onetan eri-
jotsaguino iraunie, emon daygun ceure adis-
quidetazunian gueure atsenengo arnasia,
icusu zaiguzan egun -en baten arpeguiz ar-
pegui zu edertazun guztijeen edertazuna,
ainche alabetaco cerutar guztijacaz batean.
Amen. Jauna pecatu &c.

Aita gurea &c.

Jesus cerura igo zan egunera-co oracinoia.

¡Jesús laztana! arguitu-ric bada illuntazu-
nez beteric egoan mundubá ceure predica-
cinoia-gaz, eta atara-ric guizona erijotsa cru-
bel bategaz demoninoaren menpeti, yatsi
ciñan Abraham-en altso edo senora, non
ceuncazan icharo-ten munduba-ren asijera-
ti, eta ordura-arteco justubaac, eta viztu-ric
euracaz irugarren egunian, irago cenduzan
berrogei egun munduban, eta eldu yatsun
gu-gandi alde eguiteco demporia, yoan bear
cenduban ceure Aita-gana, eta onetaraco
batu-ric ceure Apostolu eta icastari guzti-
jaac, igo cenduban erracaz, Olivete derichon
mende eregui batera, eta ainche ceure az-
quenengo bedeincacinoiac guztijai ezarri-ta,
Abran-en altso edo senoti atara cenduzan
santubacaz inguratu-ta triunfoz edo garait-

šaz beteric igo cenduban ceru ederrera, non
 zagozan izatia dauqueen gauza guztijaac baño
 gorago, ceure Aitac berac beste escubide-
 gaz... Ain irrimpe pecatubac zarratu cituban
 atiac idigui-ta, bere al edo podere guztija
 demoninoa-ri quendu-ta, Jaungoico ta gui-
 zonen arteco haque zorijontsubaac eguin dá,
 bijurtu cñan barriro gure arteti ceure Aita-
 gana. ¡Oh cé beste modutan ichi cenduban
 munduba, Jesús laztana, aurquitu ceuduba-
 neti! ¡Ceru luurrac alabau zaijeezala, eguin
 cenduzan eguquera arrigaari, eta mirariz-
 coac gaiti!... Fede osoa-gaz sinistuten dogu,
 bigarrenez yatsi-co zareala ceruti luurrera,
 baña lenengo etorreria ain beeratu-te edo
 humiltazun andijacaz izan bazan, yatsi-co za-
 reala bigarrenez majestade edo anditazun a-
 rrigarrija-gaz odeiz-co trono edo yarlecu
 éder baten, gure redencinoe-co curutse san-
 tuba aurrian dozula, guizon, Aingueru, eta
 demonino guztijaac adorañ-co zaitubezan
 moduban, gueure bicitsa-co contu ciatz eta
 estubaac artutera. ¡Cé humildu-ric egon-go
 dirian orduban luurra-ri icara eraguin eut-
 seen erregueac!... ¡Cé larrituric aurquituco
 direan orduban, munduba dotrina ustelduz
 atsitú daben Filosofo arruac!... Egun itsal-
 aren gomutia zartu eguizu, Jauna, gaur-ga-
 nic gueure bijotsetan, azartu ez gaitezcan le-
 curic emoten gueijago gugan pecatuba-ri,

gorroto geijago-gaz beguiratu deijogun erijotsia-ri berari baño; merecidu daigun asquenez gueure gañian artutia, araco autu edo escojidubai ezarrico deutseezun bedein-caciñoia, euracaz batera yoan gaitez an ceru ederrera, mundubaren asijerati zure Aitac justubeenztat prestau-ric daucazan atseguiu edo contentubaac gozetara. Amen.

Aita gurea &c.

BARICU SANTU

GOSHERA-CO GUERALDIJAAC.

Egun onetan zazpi Elesha icusi edo visitau ta irabazten dira Erronia-co parcamen edo indulgencia guztijaac, eta bardin irabasten dira, Elesha bat baño eztagoan lecubau, bera zazpi bider icusijagaz.

Emen iminten deutsudaz ataraco gogarte ta oracinoiac.

LENENGOA.

¡Jesus ona! irago-ric bada ain gau nequet-saba, soea sendo eta catee astunacaz lotu-ta, atara cindubeezan gosh-aldean Caifas-en echeti, ta bulsaca ta eztropezuca lantsian

hein luurre-ra ezarten cindubeezala, ta yaus-
te bacochean zauri barrijaae ceure gozput-
zian eguiten yatsuzala, eroan cindubeezan
Pilatos-egana: ceñec ezaguturic erru baacoa
ciñeala, bialdu cinduzan Herodes-egana, eta
onec bere itaune-ai yaramonic eguiten ez
ceuntseelacó, zorotsat artu-ta yasteco zuri
zar bategaz bialdu cinduzan barriro Pilatos-
egana, berác erabagui eguijan ceure erijot-
saco condenacinoia. ¡Oh cé humiltazun an-
dijagaz daroazuzan, Jesús laztana, bateti bes-
teraco bideetan emoten deutsabeezan ucabi-
llada, ta belar ondacoac! ¡Ce ishillic eta hu-
millic entsuten dozuzan, infernu-co canalla
areec Juez aren aurrean eraguiten deutsu-
beezan guzurrezco testimoniñoac! ¡Cé icas-
bide andijaae ichiten deuscuzuzan, Maesu
yaguinzuba, gueure andi-uste edo soberbi-
ja beeratuteco! Iguzu, Jauna, escuba gue
paciencijatan eroan daiguazn erbeste oneta-
có yasoera char ta naibagueac, ceure antsera
bici izanic munduban izan gaitean ceure be-
tico lagun ceruban. Amen.

Orain esango dozuz bijotzeti sei Aita gu-
rea eta Avemarija; eta alan esan-go dozuz
Guera-aldi bacocharen ondoan.

BIGARRENA.

¡Jesus gozoa! ezaguturic bada Pilatosec

Escriba eta Fariseo-en itsumendija beeratu-
te arren modu-ren baten, euraac ceugana-co
euqueen amorruba, agundu eban guztiz ir-
rime azotadu cenguizeezala, ta berdigu infer-
nutar-areec berpertatijan metarri edo pi-
llar gogo bati lotu-ta, cordel morapildu: bacaz
ta abereen ugal sicatu batsucaz, emon cut-
subeezan bost milla ta ainuebeste azote, ceu-
re gorputze-co aragui zatijaac gora goratan
ereguita azurraac aguirijan ifini artean...
Iguzu, Janna, gracia guc gueure bijotsaac
mindu baga-ric, eroan daiguzan, gueure pe-
catubeen ordera-co bialdu-ten deuscuzan a-
zotiac, euracaz quitutu daiguzan gure peca-
tubeen zerraac, gueure bicitsa-co contu-
ciatz eta larrija emotera yoan baño leenago.
Amen.

IRUGARRENA.

¡Jesus laztana! ascatu-ric bada lotu-ta cen-
gozan pillar-eti, yausi ciñan auspaz ceuc
eguinico odol pozu-ra, non luce echun da,
ceure odol-etan eztatdu-ta, cengozan eregui-
nic, azotien azotez odol guztijaac atara-ta,
indarren posca baga-ric cengozalaco. ¡Jaun-
goico andija! ¡Cerutar-en alabantsaac ichi-ta
munduba salveta-arren, guizon-en artera e-
torri zarcana! Aushe da mesede ain andi-
jeen orde z gugandi artsea dozun zarija ¡Ay!
eta cé zamin bijurtu-ten yatsuzan, guc ain

erraz iruntsi-ten doguzan pecatubaa!c... Eza-
gutu eraiguzu, Jesús gozoa, ce errerie da-
goan ceure animea gu-ganaco amodijoan,
berorren gomutia-gaz ishetu dedin gure bi-
jotsetan zu ganaco amodijo su ta gar andi-
co bat, orregaz zu bijotseti maite izanic,
bici garean arte gustijan, eldu gaitezan gue-
ro, ceu beti maite izango zaituguzan ceru
eder-era. Amen.

LAUGARRENA.

¡Jesus bijotsecoa! ereguerie bada, gustijo-
ri odol-etan naazu-ta guizon-en irudi edo
ichura baga, ceure aragui uratubaac capa-
zar bategaz eztaldu-ta, imini cindubeezan yar-
lecu baten; baña ez acetu-ric zukan eguin e-
bén carnicerija gogorra-gaz, ez erruquituric
icuz-garri negar-garrizeo orretan ceu icusi-
jagaz, asman ehén, guizon-en gogora eldu
bere cein leitequean tormentu mueta edo
genero barri bat, bada inguratu eutsubén
ceure buru guztija, beguijeetaraguino irago-
ten cirian arantsa zorrotsacaz, azoteac ichi
eutsubeezan odolaac, curacaz atara-teco, eta
emonie escura cañabera bat, chiztu ta gorro
loi atsitubaac ceure aurpegui beneragarri-ra
ezarrita, echuten cirian burlaz belaun-bico
ceure aurrean guzurrez-co adoracinoiac e-
moten eutsubeezala... Negar eguin eguizubé,

Aingueru ederraac, icusi-ric ain ichura gal-
duban, ta guizon gaisquille, edo infame bat-
zubeen burle-garri eguinic, araco ceruban
aimbeste itsaltazun edo beneracinoe-gaz
adoretan dozubeen erreguea.. Coroe itsaltsu
orrec emon eutsuzan min ala edo tormentu-
baccgaiti escatuten deutsugu. arren, atara
daizuzala gure bijotseti pecatubén sustraijac,
eta arantsa orrén puntác imini daizuzala eu-
rén ordean, ceuré bildur santuban gure
egunác emon daiguzan, eta ceure glorijaracó
coroea beticó irabaci daigun, Amen.

BOST-GARRENA.

¡Erregue guztijen erreguea! bada ceuré
gorputsecó araguiaac azotez birrindu-ta, a-
rantsazco coroeé eta zoiñecó gorri eten bate-
gaz atara cinduzan Pilatos-ec baranda edo
balcoé batera, an egoan gentedi andijari era-
custerá, uste izanic, zu ichura galdu orretan
ienstea hacarrie, asco izango zala, euren bi-
jotz arritubác zamurturie gueldituteo. Baña
¡Ay bildotz orban baguea! ya dagoz ligoé
gozetubac ceure odol errubácoac iruntsiteco
egarrijagaz, eztira betetan euren guraari a-
morratubác, ceu arbola bateti ezqueguita
illic icusi artean, eta orregaiti deadarrez eta
aó betean ecer ez palitsan leguez, escatuten
dabé ceure odola eta erijotsea. Ceure errai

zamura eta bigunacgaiti gura izan eguizu, arren, Jesús laztana, areec baño gu obeto bali-jotia ceure odol eta erijotseagaz, odol orregaz garbitu daiguzan gueure animaco orban eta ezaintazunac, eta garbitazun onetan iraun daigun mundu onetati urten artean, modu onetan zarta gaitezán, ceure erijotseagaz idigui ceuzcun betico glorijara. Amen.

SEIGARRENA.

Zure bijotz caridadian erreric dagoanentzaco, gaichi diraz, Jesús laztana, oraindano necaloi arrigarriac, eta redencinoeco escutapen edo misterijo veneragarriari betetazuna osoro emotecó, curutse esquerguea lepo gañean cendubala, bere pisubagaz gorputz gustija aricatu-ta, aurpeguia odoltu-ta, belaanac icara eta alborutz-ca yoañ cñan ainchina Isaac leguez calvarijo-co mendira, gente talda andi bat atseti burlaz cendubala. ¡Glorijaco Erreguea! ¡Gueure animeen yaube bacarra! ceure aurpeguico larritasonac aitu-ten emoten dau, cé estuturic dagoan ceure bijotsa. ¡Ay! eta, ¡cé urcamendi lotsagarrijan zoazan emotera ceure atsenengo arnasia! Urten eguizubé Sion-go alabaac, icustera Salomon baquetsuba, ez lorez ezpada arantsaz beré buruba inguratu-ta, pregoe eta deadar lotsagarriac gaz berac daroian zur itsalean, bicitsea quentsera daroiela.

Iguzu, Jauna, indarra penitencijaco curutzeagaz ceure oin-atsa santubeen yarra; jibiletco, ceu cerubetan icustera eldu artean Am.

ZAZPIGARRENA.

Eldu da Salbaguillea, arnasaric artu ecinda agonijaco larritazunac-gaz erijotsaco lecura; eldu da Abraham-en semia mendija-ren guenera, bere bicitsea-ren sacrificioa Jauugoicoa-ri esquintera; Ya dagoz prest ligoe amorratubaac, erijotsaric gogorrena emoteco, osasuna mundura ecarri dabenari; ya dago beguira Cain madaricatuba bere atsamarrac-gaz bicitsea quenduteccó Abél bere anaije santubari: eta lotsagarrijagoa izan cedin bere erijotsea quentsen deutzéz indarrez bere aragui eratsijai itsatsi-ta egozan soñecoac; ichiten dabé narru gorrijan buruti biatsera atal oso bagaric odol errecoac darijozala, eta ez asetu-ric onegaz ereguiten dabé gora goratan, escu onetati untseac-gaz curutsean yosita; non zotin ta naibague artean, atsacabe eta cispuru artean emoten daben bere atsenengo arnasea. ¡Oh Absalon ederra! Ya icusten zaitugu arbolati dinguillisca guizon-en ants edo ichura бага: ¡Oh Adan benetacoa! ya igo dozu arbolea-ren gañera bicitsea-ren frutu gozoac mundubari esquintera. Baña, ¡Ay! ¡Cembat costa yatsun erremedijetiá, Adam

lenengoac ain erraz eguin eban pecatuba!
¡Cé zamina izan dan, beragaiti irunsi bear
izan dozun pasiñoia!.. ¡Cé bildurgarrija izan
dan beragaiti artu bear izan dozun erijotsia!
¡Jesús ona! erruquitu zaite pecatarijogaz,
ceintsubeen billa yatsi ciñan ceruti luurrera;
gure asco guriac ecarri einduzan ezquero
pecatarijeen artera, guganaco amodijuac ira-
go eraguin eutsuzan ezquero pasiñoie itsal
eta erijotsa lotsagarrijori, baquetu gaizuz
arren, ceure Aita aserratubagaz, ain amodijo
andijagaz curutsean yosteco emon cenduzan
escubaac ezarri eguizuz gure gañera, eta
aazturic asquenez geure dongaro eguinac-
gaz, eroan gaizuz ceure alboan il zan lapur-
damutuba eroan cenduban lecura. Amen.

Erroman estaciñoa dagoan egun gustijee-
tan, Bulda Santuba euqui ta, bost altaraac
icusí edo visitadubagaz irabasten dira es-
taeinoe ataco parcamen edo indulgencia,
gustijaac, barriz bi bidar irabasten ditu, Bul-
da santuba eguijagaz gañeti, errosarijoco co-
fradijan zartu-ta dagoanac; eta parcaeinoe
oneec nai Buldiarenac, nai errosarijoco co-
fradijacoac dira garbitegui edo purgatorijoco
anima triste arec gaiti ezarri edo aplicau

leizanac. Ona iminirie emen ataraco oraci-
ñoë hat, cein aimbat zarrijen eguin bear
guenduquee cristinaubén icenagaz poztuten
garean guztijoc, bici garean dempora illun
eta negar-garrizco onetan.

ESCABIDEA.

¡Gueure Jaun eta Jaungoico andi eta guz-
tiz altsuba! bada ceure ontasunagaiti Elesha
Ama santearen ondasuntegui edo tesorubén
artean, gure pecatuboen parcaciñoeraco ichi
cenduzan, ceure semia-ren, here Ama lazta-
naren, santu eta cerutar guztijeen irabaste
edo merecimentubaac, ichiten cendubala
Erromacó huru edo vicarijo nagusija, euraac
gueuri dispensau edo emoteco escubideagaz.

Gueure otztazun epeltasun eta devocino-
iaren faltiac ez daiguzala galdu eraguin, ba-
ña bai emon eiguazu gracia, bear direan
prestaera edo disposicioiacaz eldaric, ira-
basteco, devocino santu onegaiti emonic da-
gozan parcaciñoë eta gracia ugarijaac. Ani-
ma eta bijotz guztijagaz erregututen deutsu-
gu onetaraco, arren gorde daguizula Elesha
Ama Santea, eta eregui daguizula beragandi
ceure aserrecuantzaco besoa, batez here aim-
beste arerijo daucazan dempora onetan, infer-
nubác, Jaungoico ta religinoë bagaco guizon
galdu batsubeen bitartez, ain guerra bicija

eguiten deutsan dempora negar-garrizco onetan indartu tá zabaldu daguizula munduco baztēr guztijeetara, ceuc ceruti yatsi cenduban religinoe santuba, munduba zoriontazunez bete daben religiñoe Jaungoicozcoa, castigau eguizuz, Jauna, gueure pecatubaac, bai; baña ez eiguzu, arren, emon castigu guztijeeu castiguba, cein dan religiñoe bagarie ichitia; erbestetu eguizuz heregijaac, ta religinoiaren contraco dotrina loi, edendu edo benenez betiac; gueitu, religinoia gordetaco eta beragaiti bicitsea emotecó, Eleshiaten semiac, yagon cristinau errijaac; zaindu fede dunaac, parcatu gueure pecatubaac; ondu peccarijaac; arguitu bein edo bein guizon itsutu orreec, eta ceruratu aibat lazterren, purgatorijoco presondegui itsaltsuban eta ango su icaragarriscoen artean penetan dagozan anima bedeincatu arec. Onez gaineti erregututen deutsugu, ceure semiaren ordeco luurrian daucazunari, emon darguijozula osasuna eta bear dituban arguitazunaac, eguin daguizan aleguin guztijac, zainduteco Elexia, zabalduiteco religiñoia, erbestetuteco heregijaac, ecarteco Elexiagana, bere arerijo dirianac, eta bijurtu edo convertiuteco peccarijaac. Baita bere erregututen deutsugu, guztijoc gaiti ezarri zan ezquero ceure semiaren odol balijotsua, gracijan dagozanai irauu eraguin darguijozula garbitazun

eta santutazunian, eta pecatu ilcor edo mortalian aurrkitu-ten dirianac, egoquera negargarrizco atati aibat lasterren atara ta ecarri daguizuzala benetaco damutazun eta ezauberara.

Barristadu eta gueituten dogú oraindañoco guentre pecatubeen damubá, eta artuten doguz gogoac leenago vicitsac galduteco ceu gueijago iraindu edo ofendidu baño; iragoric gueure egun laburraac ceure servicijoan, eldu gaitecen onen zarijan, cerutar guztijacgaz zuri betico bedencaciñoiac cantetara. A.

*Oracinoe au esanic equingo dozu Altara
iauste edo visitea.*

Ara emen eusquera garbijañ erderazco naaste bagaric, beste oracinoe guichi batsucgaz naztean, calvarijoco gueraaldi santubaac erabilteco modubá. Gach eguin-go yatsu venturaz burñtan artuten, gñeraaldijac luciac dircalaco, baña ez ichi orregaiti ezda bearrecoá buruz icastia, bada bardin irabacico dozuz paracinoe edo indulgencijaac, eta atara ornura edo frutu ederraac, liburñti ondo eta erabagui iracurrijagaz. Ez eguizu esan eusqueria iracurteco gacha dala, izqueta eder

au, izqueta gozotso au celacoa dan ezagutu-
 ten ez dabeen ascóc, esan oi dabeena leguez,
 bada gach erechiten badeutsagū, eusquera
 iracurteari, ezda beste gauza gaiti atara oi-
 tuten éz garelacó baño. Ez dago gauza er-
 racie lenengoan, erderia nai beste edocéin
 izqueta modu eguiten da gach, icasi artean,
 bardin yasoten da eusqueriagaz bere; zaletu
 zaitte iracustera, eta icusi-co dozu, ez bacar-
 ric gozo eta erraz, baita bere mesedagarrija
 izango yatsula, eta guztiz mesedegarrija eus-
 quera iracurtia. Berau ez yaquiteagaiti aur-
 quituten dira asco eta guztiz asco euscaldun-
 nen artean, errosarijo bat celan esan, mesa
 bat celan entsun, eta confesioe bat celan
 ondo eguin yaquin bagaric, eta euretarico
 ascó urte osoetan escolan ibilijaac; eta au,
 ¿cegaiti? erraz da ezagutu...

Maitatu eguizu bada euscaldun bijoteceoa,
 ceure amaren bularragaz batera iruntsi cen-
 duban izqueta gozo au, eta icasi eguizu, di-
 rautsut barrero; eusquera iracurten, bada
 eusquera iracurten icasijagaz, icasicó dozu
 cristinau on bat izateco, eta devocinozco bi-
 citsa gozoari yarraituteco bear dozun guztija,
 deabrubaren asmaba da euscaldunai eusque-
 ra iracurten galarasotia, ondo daqui guzur-
 raren Aita onec, cé zorijon ugarijac yatorca-
 zan animea-ri liburu santubéen iracurtseti,
 eta ezaguturic euscaldunac biar dan modu-

ban aituten ez dubeela, eta aituco bere ez da-
beela erderia, eguiten ditu aleguinac, esacu-
ne guzurti batsucgaz eusqueria galerazoteco.
Baña ez yaramon eta yarraitu iracurteari,
icasi daguizun diabrubaren asmubac ezagu-
ten, eta mundubaren eracuste loijac gorro-
tauric, erijotsa arteco egunac Jaungoicuaren
adisquidetazunean iragoten, luurreco egotal-
di labor onen ostian igo daguizun beticó zo-
rijontazunetara.

Lan labor onen zarijan azartuten naichat-
su escatutera, erregutu daguijozula Jaungoi-
coari, aztu dedilla arren, nire dongaro egui-
nácgaz eta neure egun laburrac emon era-
guin daidazala bere servicijoan, egun-en ha-
ten alcar ceruban icustera eldu gaitecen.

Alan izan dedilla.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16
17
18
19
20
21
22
23
24
25
26
27
28
29
30
31
32
33
34
35
36
37
38
39
40
41
42
43
44
45
46
47
48
49
50
51
52
53
54
55
56
57
58
59
60
61
62
63
64
65
66
67
68
69
70
71
72
73
74
75
76
77
78
79
80
81
82
83
84
85
86
87
88
89
90
91
92
93
94
95
96
97
98
99
100

